



## ARRIGORRIAGAKO TOKIKO AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA



**2 Dokumentua. Ekintza eta Jarraipen Planak**

<b>Dokumentuaren izenburua:</b>	<b>ARRIGORRIAGAKO TOKIKO AGENDA 21 2 Dokumentua. Ekintza eta Jarraipen Planak</b>
<b>Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal laguntza teknikoa:</b>	UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.
<b>Hartzailea:</b>	<b>Arrigorriagako Udala</b>
<b>Udaletxe parte-hartzaileak:</b>	Arakaldoko Udala Arrankudiagako Udala Arrigorriaga Udala Etxebarriko Udala Galdakaoko Udala Orozkoko Udala Ugao-Miraballeseko Udala Urduñako Udala Zaratamoko Udala Zeberrioko Udala
<b>Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa</b>	Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal
<b>Orriak:</b>	20
<b>Hizkuntza:</b>	Euskara
<b>Bertsioa:</b>	Behin betikoa
<b>Entrega data:</b>	2013ko Apirila



## ÍNDICE

TOKIKO EKINTZA PLANA.....	4
1. Sarrera.....	4
2. Ekintza Planaren xedea.....	4
3. Aalborg + 10 konpromisoak .....	4
4. Tokiko Ekintza Planaren formulazio elementuak .....	5
5. Tokiko Ekintza Planaren gauzaper prozesua .....	5
6. Ikuspegia .....	7
7. Helmugak.....	8
8. Lerro estrategikoak, programak eta ekintzak (LPE).....	10
1. Jarraipen Planaren Xedea .....	16
2. Jarraipen Planeko Operazioak.....	16
3. MUGI 21 Planaren kudeaketan tresna lagungarri moduan .....	19
4. Nork hartzen du parte Planaren kudeaketan?.....	19
5. Jarraipenerako Ereduaren proposamena.....	20

## TOKIKO EKINTZA PLANA

### 1. Sarrera

Tokiko Ekintza Plana, Tokiko Agenda 21en oinarrizko elementua, Arrigorriagako udalerririk **Iraunkortasunarekiko duen estrategia eta konpromisoa da.**

Ekintzak gauzatuz udalerriko eta eskualdeko **Ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko erronkei erantzutea** da bere helburua.

**Planaren iraunaldia 8 urtekoa da.** Honela epe labur, ertain eta luzera begira ekintzen garapen eta exekuzioko epealdi errealetara egokitzen den plangintzarako tresna izango da.

### 2. Ekintza Planaren xedea

Tokiko Ekintza Plana egitearen xedeak ondorengoak dira:

- Udalak Tokiko Iraunkortasunaren alde lan egiten jarraitzeko bere gain hartu duen konpromisoari erantzun.
- Biztanleria erabakitze-prozesuetan barneratu eta kultura parte-hartzailea handitu.
- Planifikaziorako tresna izan, etorkizuneko ekintzak modu ordenatuan programatzeko.
- Diseinua egin ostean, kudeaketarako eta ebaluaketarako tresna izan, urteroko aurrekontuei lotuz.
- Udalaz gaindiko finantzaketa iturriak jasotzea erraztu.

### 3. Aalborg + 10 konpromisoak


Aalborg+ 10 konpromisoak Ekintza Plana formulatzerako garaian oinarrizko erreferentzia-esparrua da.

1. **Gobernantza moduak:** erabakiak hartzeko prozedurak demokrazia esku-hartzaileago baten bidez bultzatu.
2. **Iraunkortasunaren aldeko Udal kudeaketa:** udal-kudeaketarako programa eraginkorrak prestatu, diseinutik hasi eta ebaluazio eta ezartze fasera arte.
3. **Natur ondasun komunak:** natur ondasun komunak erabiltzeko aukera berak izan ditzagun zaindu, babestu eta bermatu.
4. **Kontsumo eta bizimodu arduratsuak:** baliabideak tentuz eta modu eraginkorren erabiltzea erraztu eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak bultzatu.
5. **Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea:** hirigintza diseinatzen eta planifikatzen eginkizun estrategikoa izan eta ingurumen, gizarte, ekonomia, osasun eta kultur gaiak guztion onerako bideratu.
6. **Mugikortasuna hobetzea eta zirkulazioa murriztea:** garraioa, osasuna eta ingurumena bata bestearen menpe dagoela onartu, eta mugikortasun iraunkorreko ereduak irmotasunez sustatzeko konpromisoa hartu.
7. **Osasunaren aldeko tokiko ekintza:** herritarren osasuna eta ongizatea zaindu eta areagotu.
8. **Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra:** ingurumenean kalterik egin gabe enplegua sor dezan tokiko ekonomia bizia sortu eta bermatu.
9. **Berdintasuna eta justizia soziala:** komunitate integratzaileak eta solidarioak bermatu.

**10. Tokian tokitik mundu globalera:** bakea, justizia, berdintasuna, garapen iraunkorra eta klima babestearen erantzukizun globala gure gain hartu.

#### 4. Tokiko Ekintza Planaren formulazio elementuak

Ekintza Planaren gauzapean honako elementuak biltzen ditu:



*Iturria: Norberak egina EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 Ekintza Planak berrikusteko Gida Metodologikoan oinarrituta*

#### 5. Tokiko Ekintza Planaren gauzapean prozesua

##### 5.1. Eragile inplikatuak

Tokiko Ekintza Planaren gauzapean honako eragile eta organoek hartu dute parte:

- **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak, proiektuko Zuzendaritza politiko eta Teknikoarekin elkarlanean eta teknikarien partaidetzarekin garatua.
- **BARNE koordinazio eta partaidetza lanak:** Udal sail desberdinetako teknikariekin bakarkako elkarrizketak eta talde politikoekin lan taldea Hirigintzako Batzordearen bitartez.
- **ESKUALDE mailako koordinazio eta partaidetza lanak:** eskualde mailako arduradun politiko eta teknikoez osatutako lan organoa den UDALTALDE 21 NERBIOI-IBAIZABAL KOMITEAREN bitartez.
- **HERRITARREN parte-hartze jarduerak:** interesdun giza eragileei egindako elkarrizketen bitartez, web galdetegiaren bitartez, pertzepzio inkestaren bitartez eta herritarren parte-hartze Foroen bitartez.

## 5.2. Metodologia

Lan programa 5 faseetan banatu da:

1. Proiektuaren zehaztapena eta abian jartzea, prozesua aurkezteko eta koordinazio eta parte-hartze mekanismoak Tokiko Agenda 21 berrikuspen prozesuaren beharretara egokitzeko Udaletxe barruan eta kanpoan (herritarrak eta giza eta ekonomi eragileak) bilerak antolatzean datza.
2. Planaren formulazio estrategikoa, udalerriko ikuspegia zehaztuz Planaren ezarpena amaitzen denean lortu nahi diren helmugak ezarriz eta helburu estrategikoak, operatiboak eta ekintzak zehaztuz.
3. Ekintzen ezaugarritzea, Plana kudeaketarako benetako lanabesa izan dadin ekintzen definizio zehatz bat egitean datza.
4. Planaren jarraipena egiteko lanabesen diseinua eta jarraipena.
5. 2 Txostenaren idazketa: Tokiko Ekintza Plana eta Jarraipen Plana.

Tokiko Agenda 21 prozesuak, kontzeptuz eta filosofiaz, **barne (Udaleko teknikari eta politikariz osatua) eta kanpo mailako (herriko sektore ezberdinez osatua) parte-hartze prozesu baten bitartez** lagundua egon behar du.

Informazio eta motibaziorako euskarri moduan balioko duen **komunikazio estrategia** baten laguntza nahitaezkoa da herritarren kalitatezko parte-hartzea bermatzeko. Horretarako, unerik esanguratsuenetan **Udaleko ohiko komunikazio kanalak** erabili dira.

Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren formulazioan zehar, lehen aipaturiko fase ezberdinetan **barne eta kanpo parte-hartzea integratu eta artikulatu da** eta ekarpenak ondorengo dokumentuan txertatu dira.

Ondorengo taulan prozesuan zehar **garatutako parte-hartze jarduerak** deskribatzen dira.

<b>BARNE PARTAIDETZA</b>	<b>HELBURUA/GARAPENA</b>
<b>Udaletxeko arduradunen formulazio estrategikoa</b>	Formulazio estrategikoa Ekintza Planaren zirriborro baten diseinua
<b>Ekintza Planaren egituraren diseinua Udaleko sail desberdinetako teknikariek</b>	Ekintza planaren egituraren zirriborroaren ekarpenak eta helburu eta ekintzen proposamenak
<b>Biztanleriaren parte-hartze batzordea (2013 otsaila )</b>	Ekintza Planaren egituraren egiaztatzea. Ekintzen proposamenak eta balioztatzeak eta lerro, estrategia eta programen egokitzapena.
<b>Udaletxeko teknikariek batzarrak, ekintzen karakterizazioa</b>	Ekintza Planaren definitutako ekintzen karakterizazioa.
<b>Biztanleriaren parte-hartze batzordea: Ekintza planaren balioztatzea eta karakterizazioa</b>	Ekintza Planaren egituraren balioztatzea eta egindako karakterizazioarena. Azken dokumentuaren onarpena.
<b>KANPO PARTAIDETZA</b>	<b>HELBURUA/GARAPENA</b>
<b>Herritarren foroak (2012 urria)</b>	Tokiko Agenda 21aren Ekintza planaren sar daitezkeen ekarpenak biltzen dira.
<b>ESKUALDE MAILAKO PARTAIDETZA</b>	<b>HELBURUA/GARAPENA</b>
<b>Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal komitea</b>	Ekualde mailan 2 ekintza mota identifikatzen dira: a. Gauzapenerako eskumena eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren baitan daudenak. b. Etorkizun hurbil eta edo urrun batetara begira eskualde mailan landuak izan daitezkeen ekintzak. Kasu honetan Nerbioi-Ibaizabal UT21 Komitea izango litzateke hauen gauzapenerako organo eskuduna.

Ezaugarritutako ekintzak biltzen dituen dokumentua Tokiko Ekintza Plana eta Jarraipen Planarekin batera formatu digitalean entregatzen dira.

## **6. Ikuspegia**

Ondoren, Arrigorriaga 2020 ikuspegia aurkezten da:

Arrigorriagako biztanleriak 2020. urtean bere beharrianak asetuta ditu, bere tokiko ekonomia aberats eta anitzean oinarriturik, gizarte garapen maila altu batekin eta kalitatezko hiri inguru eta naturalarekin.

## 7. Helmugak

Ondoren Arrigorriagako 2020 urterako onartutako Helmugak aurkezten dira:

### IE.1. IRAUNKORTASUN BALOREETAN OINARRITUTAKO INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO IRISPENA SUSTATZEN DUEN ETA PARTE-HARTZEA ERRAZTEN DUEN UDAL KUDEAKETA GARATU

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Urtean 3 Ingurumen hezkuntza jarduera baino gehiagoko batz bestekoa lortu.	Ingurumen hezkuntza jarduera kopurua/urteko.
Urtean gai ezberdinen inguruan 20 parte-hartze bilera baino gehiagoko batz bestekoa lortu.	Herritarren parte-hartze bilera kopurua/urteko.

### IE.2. ESPAZIOAREN ERABILERA BALIOAK ARRISKUAN JARRI GABE BULTZATUKO DUEN HALA LURRALDEAREN NOLA NATURAREN ORDENAZIO ZEIN KUDEAKETA GARATU

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA
Lurzuro artifizializatua aurtengo datuan mantendu	Artifizializatutako udalerriko azalera (%)
Babes bereziko lurzorua aurtengo urtearekiko mantendu .	Babestutako udalerraren azalera %, udalerriko azalera guztiari dagokienez.
Bizitegi lurzoruaren erabilpena mantendu	Bizitegi lurzorian dauden biztanle Z°/ udalerriko bizitegi lurzoru Ha azalera

### IE.3. BIZTANLERIAREN BEHARRAK ASETUKO DITUEN MUGIKORTASUN ERAGINKOR, LEHIAKOR, BIDEZKO, OSASUNGARRI ETA ZIURRA GARATU

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA
Tokiko bidegorri sarea bikoiztu	Bidegorri sareko Km kopurua

### IE.4 BIZIMODU ARDURATSUAK SUSTATU ETA ONDASUN NATURAL KOMUNEN ETA HONDAKINEN ERABILERA ETA KUDEAKETA EGOKIA BULTZATU

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA
Hondakinen bilketa selektiboa % 25 era igo.	Selektiboki bildutako hiri hondakinen % /urtean.
Kanpoko argien energia kontsumoa % 20 Kwh/bizt/urtean murriztu	Kwh/bizt/urtean.

### LE.5 ARRISKUA ERA ARDURATSUAN KUDEATU, INGURUMEN KALITATEA HOBETU ETA KLIMA ALDAKETAREN BORROKAN AURRERA EGIN

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA
Udalerriko berotegi efektua garatzen duten gasen isurketa ez igo.	kgCO2e/bizt/urteko udalerrian.

### IE.6 SARE LANA INDARTUZ INGURUAREKIN BAT EGITEN DUEN ETA TOKIKO ENPLEGUA BULTZATZEN DUEN EKONOMIA DIBERTSIFIKATUA ETA LEHIAKORRA GARATU ETA HERRITARREN ONGIZATEA ETA BARNERATZEA BULTZATU

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA
Establezimendu kopurua aurtengo datuan mantendu.	Enpresen sorkundea. Establezimendu kopurua/1000 biztanleko (%).
Merkataritza azalera minorista aurtengo datuan mantendu	m <sup>2</sup> /1000 biztanleko.



### IE.7 PERTSONA OROREN ONGIZATE, GIZARTERATZEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA
Laguntza ekonomikoen erantzun maila mantendu (aurtengo balioa % 100)	Erantzundako eskari kopurua /Onartutako eskari kopurua

### IE.8 KULTURA, AISIALDIA ETA KIROL ESKAINTZA ANITZA ETA PARTE-HARTZAILEA GARATU

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA
Elkarteen parte-hartzearekin antolatutako kultura eta kirolaren inguruko urteko ekintza kopuruaren batez bestekoa mantendu	Garatutako ekintza kopurua
Polikiroldegiko bazkide kopurua % 10an igo.	Bazkide zenbakia

## 8. Lerro estrategikoak, programak eta ekintzak (LPE)

### IE 1. IRAUNKORTASUN BALOREETAN OINARRITUTAKO INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO IRISPENA SUSTATZEN DUEN ETA PARTE-HARTZEA ERRAZTEN DUEN UDAL KUDEAKETA GARATU

#### **Programa 1.1. Bizi eredu jasangarriagoak eta arduratsuak eragiten duten sentsibilizazioa eta parte-hartzea bultzatu eta indartu, erantzukizun partekaturantz.**

- E 1.1.1. Garatutako parte-hartze mekanismoak finkatu
- E 1.1.2. Udal sail eta arlo desberdinetan garatzen diren kudeaketa eta plangintza ekintzetan parte-hartze mekanismoak finkatu.
- E 1.1.3. Iraunkortasunari buruzko sentsibilizazioa eta formakuntza eta hezkuntzarako jardunaldiak garatu eta diseinatu

#### **Programa 1.2. Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren kudeaketa eraginkorra**

- E 1.2.1. Tokiko Agenda 21eko planifikazioa, sustapena eta jarraipena egiteko barne mekanismo iraunkorrak edo organo teknikoak ezarri
- E 1.2.2. Tokiko Agenda 21eko urteko kudeaketa egiteko barne koordinazio mekanismoak eta herritarren parte-hartze mekanismoen arteko lotura bultzatu.

### IE.2. ESPAZIOAREN ERABILERA BALIOAK ARRISKUAN JARRI GABE BULTZATUKO DUEN HALA LURRALDEAREN NOLA NATURAREN ORDENAZIO ZEIN KUDEAKETA GARATU

#### **Programa 2.1. Interes ekologikoa eta paisajistikoa duten elementuak mantentzea, berreskuratzea eta balioan jartzea**

- E 2.1.1. Udalerriko ingurumena eta paisaia bereizteko ikerketak egin, interesekoak diren guneak ezagutuz, babesa/berreskuratze ekintzak definituz
- E 2.1.2. Mendikosolo Barrena eta Mintegi parkearen Plan Berezia garatu.
- E 2.1.3. Herriko erabilera publikoa duten mendietan eta aisialdirako lekuetan zuhaitz autoktonoak landatzea bultzatu.
- E 2.1.4. Floraren babes eta kontserbaziorako mekanismoak ezarri, landaredia exotikoaren agerpena ekiditeko eta kanporatzeko

- E 2.1.5. Ibai ertzak eta interesa duten beste guneak berreskuratu eta mantentzeko ekintzak identifikatu, proposatu eta kudeatu
- E 2.1.6. Bide publikoak balioan jartzea eta berreskuratze ekintzak garatzea, udalerriak eskaintzen dituen natur eta ondare baliabideak biztanleriari hurbilduz.
- E 2.1.7. Bidezidor berriak identifikatu eta berreskuratu, Ibilbide laburren sarean (PR) sartzeko eta homologatuak dauden hiru bidezidorrak sare horren barnean mantendu.
- E 2.1.8. Nerbioi eta Ibaizabal ibaien eta bere ibaiadarren arteko parke linealaren gauzapena bultzatu
- E 2.1.9. Sare elektrikotik eratorritako ekintzek udalak kudeatutako zuhaitzetan duten eragina kontrolatu eta hauen jarraipena egin.

#### **Programa 2.2. Paisai hiritarra balioan jartzea eta ondare kulturalaren babesa**

- E 2.2.1 Malmasingo Gotorlekua intereseko ondare kulturala izendatzea sustatu eta jabetza publikora pasatzea.
- E 2.2.2. San Pedro ermita intereseko ondare kulturala izendatzea sustatu eta jabetza publikora pasatzea.
- E 2.2.3. Udaletxe zaharra balioan jarri.

### **IE.3. BIZTANLERIAREN BEHARRAK ASETUKO DITUEN MUGIKORTASUN ERAGINKOR, LEHIAKOR, BIDEZKO, OSASUNGARRI ETA ZIURRA GARATU**

#### **Programa 3.1. Mugikortasun fluxuei irtenbidea eman motorrik gabeko garraio moduak bultzatuz**

- E 3.1.1. Mugikortasun jasangarrirako plan bateratua garatu.
- E 3.1.2. Bizkaiko Bizikletentzako sare Planaren garapena bultzatu
- E 3.1.3. Udaleko Bizikleten bide sarea garatu, Basaurirekin lotura erraztuz.
- E 3.1.4. Udalerriko ikastetxeekin batera Eskola bidea proiektua garatu.

#### **Programa 3.2. Irisgarritasun unibertsala bermatu**

- E 3.2.1. Bide publikoaren Irisgarritasuna garatu, hirigintza irizpideak jarraituz.
- E 3.2.2. Eraikin publikoen irisgarritasun baldintzen hobekuntza definitu eta garatu.

**Programa 3.3. Mugikortasun jasangarri eta bide segurtasunerako hezkuntza**

- E 3.3.1. Partekatutako bizikletentzako bideen erabilera seguru eta arduratsua egiteko bide publikoko erabiltzaile guztiak sentsibilizatu.
- E 3.3.2. Biztanleria, mugikortasun jasangarriari buruz eta ibilgailu pribatuaren erabilerari buruz sentsibilizatu.

**IE.4. BIZIMODU ARDURATSUAK SUSTATU ETA ONDASUN NATURAL KOMUNEN ETA HONDAKINEN ERABILERA ETA KUDEAKETA EGOKIA BULTZATU**

**Programa 4.1. Uraren ziklo osoa hobetu, ura biltzen duen hartuneetatik hasiz ibaira itzultzen den puntuetaraino**

- E 4.1.1. Mendikosolo urtegiko ureztatzeko sarea Udalerriko beste parke batzuetara luzatu.
- E 4.1.2. Udalerriko saneamendua osatu.

**Programa 4.2. Energia aurrezte eta hala eraginkortasunaren nola energia berriztagarrien sustapena egin**

- E 4.2.1. Zerbitzu energetikoak eskaintzen dituen enpresa baten kontratazioaren bitartez eraginkortasun energetikoa lortzeko neurriak bete..
- E 4.2.2. Udal erakinetan eta azpiegituretan energia berriztagarri sistemak ezarri.
- E 4.2.3. Udaltzaingoaren ibilgailuak aldatzerako garaian, ibilgailu elektriko edo/eta hibridoak eskuratu.

**Programa 4.3. Hondakinen murriztea, berrerabilpena, birziklapena eta balioztatzea**

- E 4.3.1. Bilketa selektiboko zerbitzuaren mailakako indartze eta zabalkundearen alde lan egin
- E 4.3.2. Hondakin organikoen bilketa bultzatu eta banakako edo komunitate mailako konposta ezarri
- E 4.3.3. Udal ekipamenduetan sortzen diren hondakinak kudeatzeko, bereizteko eta murrizteko neurriak ezarri.

## IE.5. ARRISKUA ERA ARDURATSUAN KUDEATU, INGURUMEN KALITATEA HOBETU ETA KLIMA ALDAKETAREN BORROKAN AURRERA EGIN

### Programa 5.1. Arriskuaren eta ekonomi jardueren kudeaketa hobekuntza eta eraginkortasuna

- E 5.1.1. Udalerriko Emergentzi plana eguneratu, herri mailan babes zibila garatu eta auto babes planak garatu udal eraikinetan.
- E 5.1.2. Sektore ekonomikoan ingurumen aldagaia txertatzeko sustapena egin; dagokien kasuetan legedia betetzen dela exijituz.

### Programa 5.2. Udaletxeak garatzen dituen ekintzetan ingurumen eta klima aldaketaren aurkako irizpideak barneratu.

- E 5.2.1. Genero eta gizarte ingurumen irizpideak barneratzen dituen erosketa eta kontratazio publikorako estrategia bat diseinatu eta ezarri.
- E 5.2.2. Udaleko ekintzetan, irizpide iraunkorrak eta praktika egokien garapena definitu eta ezarri.
- E 5.2.3. Udalerriko eta udaletxeko berotegi efektua duten gasen inbentarioa/karbono aztarna urtero kalkulatu.

## IE.6. SARE LANA INDARTUZ INGURUAREKIN BAT EGITEN DUEN ETA TOKIKO ENPLEGUA BULTZATZEN DUEN EKONOMIA DIBERTSIFIKATUA ETA LEHIAKORRA GARATU ETA HERRITARREN ONGIZATEA ETA BARNERATZEA BULTZATU

### Programa 6.1. Aberastasuna sortzeko iturri moduan merkataritza eta ostalaritza jarduerak sustatu

- E 6.1.1. Merkataritza Indartzeko Plan Bereziaren iraunaldian garatzeko ekintzak
- E 6.1.2. Merkataritzan belaunaldiko ordezkapena erraztu

### Programa 6.2. Harreman eta elkarlan sare publiko – pribatuak sortu

- E 6.2.1. Enpresen arteko lehiakortasuna indartu enpresa sareak sortuz,
- E 6.2.2. Administrazioa eta eragile ekonomikoen (enpresa, elkarte , e.a.) arteko harremana ezartzeko mekanismo iraunkorrak ezarri.
- E 6.2.3. Formakuntza zentro, teknologia zentro eta enpresen arteko lankidetzarako mekanismoak ezarri.

**Programa 6.3. Ekintzaile eta auto-enplegurako aukeren sustapena.**

E 6.3.1. Ekintzaileentzako laguntza teknikoa eta formakuntza.

**Programa 6.4. Bertako enplegu eskatzaileen enplegarritasuna hobetu, formakuntza eskaintza indartuz eta merkatuaren eskarrietara egokituz**

E 6.4.1. Sektore zehatzetako langabetuei zuzendutako prestakuntza eskaintza garatu.

E 6.4.2. Etorkizuneko gaietan oinarritutako formakuntza eskaintza garatu.

**IE.7. PERTSONA OROREN ONGIZATE, GIZARATERATZEA ETA OSASUNA SUSTATZEA**

**Programa 7.1. Pertsona ororen ongizatea, gizarateratzea eta barneratzea**

E 7.1.1. Mendeko pertsonak zaintzen dituztenentzako laguntza, formakuntza eta euskarri proiektuak garatu.

E 7.1.2. Belaunaldien artean lan egiteko ekintzak garatu, ikastetxe eta gizarte eragileekin elkarlanean.

E 7.1.3. Enplegarriak ez diren taldeak beraien arazoengatik lagundu.

E 7.1.4. Gizarte zerbitzu sailean dauden kualifikatutako pertsonala, materiala eta baliabide ekonomikoak mantendu.

E 7.1.5. laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren kasuetarako laguntza ekonomikoen mantenua ziurtatu.

**Programa 7.2. Genero ikuspegitik berdintasunezko gizarte bat sustatzea**

E 7.2.1. Berdintasun Planaren ezarritako eta garatu gabeko ekintzak garatu

E 7.2.2. Berdintasun Planaren berrikuspena egin.

E 7.2.3. Berdintasun Planaren garapenaren planifikazio, koordinazio eta jarraipena egiteko antolaketa, barne kudeaketa eta biztanleriaren parte-hartze egiturak garatu.

**Programa 7.3. Inguru eta ohitura osasuntsuak sustatu biztanleriaren artean**

E 7.3.1. Drogen kontsumoarekin erlazionatutako arriskuak ekiditeko eta murrizteko programen garapena.

#### **Programa 7.4. Ekintza solidarioen sustapena udal mailan**

- E 7.4.1. Udaletxeko aurrekontuetatik nazioarteko ekintza solidarioei dagokien emaria mantendu.

### **IE. 8. KULTURA, AISIALDIA ETA KIROL ESKAINTZA ANITZA ETA PARTE-HARTZAILEA GARATU**

#### **Programa 8.1. Euskara erabileraren sustapena eta normalizazioa**

- E 8.1.1. Euskara biziberritzeko plana berrikusi (EBPN) eta datozen urteetan Plan berrian aurreikusitako ekintzak ezarri.
- E 8.1.2. Euskara biziberritzeko plana berrikusi, hautemandako oztopoak gainditzeko neurriak bilatuz.

#### **Programa 8.2. Kultura, aisialdi eta kirol eskaintza erakargarria eta parte-hartzailea**

- E 8.2.1. Gizarte erakundeek garatzen dituzten ekintzen sustapena.
- E 8.2.2. Kultura azpiegituren kudeaketa eta erabilgarritasunari buruzko hausnarketa bat egin, bere erabilpena optimizatzeko eta baliabide eta proiektuak hobeto kudeatzeko.
- E 8.2.3. Polikiroldegiko instalazioen modernizazioa eta hobekuntza jarraian aurrera egin.
- E 8.2.4. Zerbitzu eta ekintzen promoziorako eta antolakuntzarako elkarlan sare iraunkorretan parte-hartu.
- E 8.2.5. Programazio Bakarreko Agenda garatu eta ezarri.

## JARRAIPEN PLANA


### 1. Jarraipen Planaren Xedea

Iraunkortasunerako **Tokiko Ekintza Planaren ezarpenerako monitorizazio lanabesen zehaztapena** egitea du helburu Jarraipen Planak, proposamenen betetze maila eta hauen eraginkortasuna ebaluatuz, baita adierazleen kalkulua ere.

Horren bitartez, Ekintza Plana inguruabar eta egoera berrietara egokitzen joan daiteke, herriaren testuinguru sozioekonomiko eta ingurumenekoaren bilakaerara egokituz.

### 2. Jarraipen Planeko Operazioak

Ekintza Plana kudeaketarako erabateko tresna eraginkor moduan erabili ahal izateko, Udalsarea 21etik (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea) aldizkako **hainbat aplikazio prozesuren integrazioa** sustatzen da, horien artean Tokiko Agenda 21 kudeatzeko eredu egokia sortuz.



*TA21en Ekintza Planaren urteko kudeaketaren zikloa*

*Iturria: "Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako Gida Metodologikoa". Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 60.zk. 2006ko Urria. Ihobe.*

Horrela, Ekintza Planaren urteroko kudeaketa ezartzeak, urtero iraunkortasun helburuen (iraunkortasun adierazleak) lorpenaren eboluzioa eta Tokiko Agenda 21ean burututako jarduerak (Planaren exekuzioaren ebaluaketa) baloratu eta komunikatzeko aukera ematen du, baita hurrengo urtean garatuko diren jarduerak zeintzuk izango diren erabakitzea (Planaren urteroko programazioa), ahal den neurrian udal aurrekontuei lotuta.



OPERAZIOA <sup>1</sup>	DESKRIBAPENA	HELBURUA
<b>TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEEN KALKULUA (TIA)</b>	Euskadiko tokiko iraunkortasunaren adierazleen sistemaren urteroko kalkulua Tokiko Agenda 21en ebaluazio eta jarraipen programaren esparruan, MUGI 21 aplikazio informatikoa erabiliz.	TIA-en kalkuluak ondorengoa ahalbidetzen du: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalerrriaren egoera eta joerak ezagutu eta ebaluatzea.</li> <li>- Urtean zehar burutu diren ekintzen emaitzak ebaluatzea.</li> <li>- Biztanleriari udalerriko garapen jasangarriaren egoera, joera eta garapen mailaren berri ematea modu argi eta errazean.</li> </ul>
<b>BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN (BEG) INBENTARIOAREN KALKULUA</b>	Berotegi-efektuko gasen Inbentarioaren kalkulua.	BEG-en isurketen Inbentarioaren kalkulua ondorengoa ahalbidetzen du: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Toki-administrazioko jardueraren ondorioz erregai eta elektrizitatearen kontsumoari eta garraioari dagokien isurketen banaketa ezagutzea.</li> <li>- Udalerriri zuzenki loturiko jardueren isurketak ezagutzea.</li> </ul>
<b>TOKIKO EKINTZA PLANAREN (TEP) BETETZE MAILAREN EBALUAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Metodologia estandarizatuaren eta MUGI 21en aplikazio informatikoaren bitartez ekintza Planak gauzatzeko mailaren urteroko balorazioa eta analisisa da.</li> <li>- Ekintza bakoitzaren exekuzio mailaren ebaluazioak horiek euren garapen egoeraren arabera sailkatzea ahalbidetzen du. Hortik abiatuz, Planaren ezarpen globalaren maila kalkulatu da.</li> <li>- Zenbait aldagaien arabera (lehentasuna, gaiak, tipologia) exekuzio adierazgarriak ere ateratzen dira; udalaren analisi ebolutiboa egiten eta hori beste prozesu batzuekin konparatzen uzten du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eraginkortasun handiagoa lortzearren, erabakiak hartzeko eta Planaren udal kudeaketaren orientazioa gauzatzeko informazio baliotsua eskaintzen du.</li> <li>- TEP-aren exekuzio mailaren ikuspegi orokorra eskaintzen du.</li> <li>- Informazioa biltzen du: programatu gabe egonik, ekintza edo helburuen garapenean laguntzen duten ekintzak sartzeko ahalbidetzen du.</li> <li>- Hobekuntzak proposatzeko zailtasunak aurkezten dituzten atalak antzematea ahalbidetzen du.</li> <li>- Inplikaturik dauden agente ezberdinei -politikoak, teknikoak, herritarrak- Tokiko Agenda 21en garapena komunikatzeko eta ezagutarazteko datu zehatzak eskaintzen ditu.</li> </ul>
<b>EMAITZAK JAKINARAZTEA</b>	Behin iraunkortasunaren adierazgarrien eta BEG-en kalkulua eta ezarpen mailaren ebaluazio prozesua bukatu eta gero, lortutako emaitzak Tokiko Agenda 21-i lotutako aktore taldeari komunikatzea beharrezkoa da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- planean inplikaturikotako eragile teknikoei</li> <li>- gobernu taldeko kideei zein herritarrei</li> <li>- herritar zein gizarte eta ekonomi eragileei</li> </ul>	Barne komunikazioaren bitartez: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Barnean dauden udaletako teknikariek Ekintza Plana barneratzen dutela sustatzea, xedea izanik hauek Planaren ekintzak beren jardueran txertatzea eta barne komunikazio eta koordinazioa indartzea.</li> </ul> Kanpo komunikazioaren bitartez: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalak iraunkortasunaren alde egiten duena herritarrei aldizka komunikatzen laguntzea, egiaztatutako informazioan oinarriturik.</li> <li>- Herritarren parte-hartze organoak finkatzen laguntzea Planaren exekuzioaren jarraipenaren eta ondorengo programazioaren bitartez.</li> <li>- Herritarren parte-hartzea sustatzea jardueren urteko programazioaren prozesuan herritarrak integratuz.</li> </ul>

<sup>1</sup> Ekintza guztiek urteroko periodikotasuna dute, Ekintza Planaren Berrikuspenak salbu, zeinak 4 eta 8 urte bitarteko maiztasuna duen, udalerrriaren arabera.

OPERAZIOA <sup>1</sup>	DESKRIBAPENA	HELBURUA
<b>TOKIKO AGENDA 21AREN KALITATEAREN NEURKETA (tak21)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- tak 21 Euskadiko Tokiko Agenda 21en kalitate orokorra neurtzeko eta ezagutzeko sistema da. 5 ezaugarriren balorazioen bitartez definitzen da: ezaugarri estrategikoak, zeharkakoak, parte-hartzaileak, operatiboak eta jasangarritasunekoak.</li> <li>- Udalsarea 21ek sustatutako Auditoretza sistema bat da, eta Sarean dauden udalerrien Tokiko Agenda 21eko prozesuen kudeaketa modeloaren parte da.</li> </ul>	<p>Ondorengoa ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bidezko diagnostiko baten bidez Tokiko Agenda 21en plangintza hobetzea.</li> <li>- Udalerrian hoberen dauden alderdiak eta hobetu daitezkeenak antzematea.</li> </ul>
<b>EKINTZEN PROGRAMAKETA</b>	<p>Hurrengo urtean Ekintza Planaren ezarpenean lagunduko duten egin beharreko jarduerak definitzea; erreferentzia moduan Planari dagokion urterako planifikatutako ekintzak eta ebaluaziotik jasotako emaitzak hartuko dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekintza Planaren hainbat urtetako planifikazioa udal aurrekontuari eta barnean dauden udal-zerbitzuen kudeaketari lotzea.</li> <li>- Planaren exekuzioa jarduteko beharren eboluziora eta eskura dauden giza baliabideetara eta baliabide ekonomikoetara modu egokiagoan doitzea.</li> <li>- Planari lotutako proiektu eta jarduerak formulatzea hurrengo urtean zehar udalaz gaindiko finantzazioaren bilketara bideratuta daudenak..</li> <li>- Tokiko Agenda 2 prozesua udal teknikarien multzo osoaren aurrean ikusgarriagoa egingo duten eta haiengandik hurbilago kokatuko duten hurbileko denbora-mugarriak eskura izatea.</li> </ul>
<b>EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA</b>	<p>Aurrekoa ordeztuko duen hainbat urteko Ekintza Plan berria lantzea.</p>	<p>Ondorengoa ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Planaren helburu zein ekintzak iraunkortasunari loturiko arloen eboluzio juridiko, tekniko, ekonomiko eta sozialera egokitzea.</li> <li>- Gaikako esparruen arabera, Planaren jardueren ezarpen mailara doitzea.</li> <li>- Udalerrriaren ingurumen eta gizarte eboluziora moldatzea.</li> </ul>

### 3. MUGI 21 Planaren kudeaketan tresna lagungarri moduan

MUGI 21 Udalsarea 21eko udal-kideentzat neurrira diseinatutako eta garatutako **aplikazio informatikoa** da. Tokiko Agenda 21en kudeaketa eta jarraipen prozesu garrantzitsuenen kudeaketa integratua errazten du, alegia, Planaren ebaluazioa, adierazleen kalkulua, ekintzen programazioa eta Planaren azterketa (planifikazioa).

Badaude, gainera, bestelako tresna batzuk, hala nola, Tokiko Jasangarritasun Adierazleen kalkulurako Metodologia, tak21 aplikazio informatikoa edo Tokiko Ekintza Planen Ebaluazio eta Jarraipen Plana besteak beste, kudeaketa eredu honen lanen garapenean laguntzen dutenak.

### 4. Nork hartzen du parte Planaren kudeaketan?

Ekintza Planaren kudeaketa prozesuan beharrezkoa da ondorengo konpromisoa:

IRUDIA	DEFINIZIOA	ROLA
<b>PROZESUAREN KOORDINATZAILEA ESKUALDE MAILAN</b>	Tokiko Agenda 21en kudeaketara lotutako UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko arduradun teknikoa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prozesu osoa erraztea eta sustatzea.</li> <li>• Prozesuan inplikaturako eragile multzoarekiko komunikazioa, laguntza eta jarraipena.</li> <li>• MUGI 21en inguruko dokumentu eta informazio kudeaketa.</li> <li>• Programazio txostena egitea.</li> <li>• Udalsarea 21ekin eta kanpoko ebaluatzailearekin komunikatzea.</li> <li>• Emaizten txostenaren tratamendua eta lantze prozesua.</li> </ul>
<b>PROZESUAREN KOORDINATZAILEA UDAL MAILAN</b>	Tokiko Agenda 21en kudeaketara lotutako Udaleko arduradun teknikoa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko koordinatzaileari laguntza ematea.</li> <li>• UT21 Nerbioi-Ibaizabali datuak eta informazioa emateko barne koordinazioa.</li> </ul>
<b>INPLIKATURAKO ERAGILEAK</b>	Udaletxe, udal enpresa, UT21 Nerbioi-Ibaizabal zein udal eskuduntzak beren gain dauzkaten eskualdeko beste entitateetako o teknikari edo hautetsiak, Ekintza Planaren buruketan inplikaturikoak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Buruturiko Ekintza Planari loturiko jarduera guztien identifikazioa.</li> <li>• Integratutako eta ebaluatutako jardueren ondorengo balidazioa.</li> <li>• Planera lotuta egin beharreko jardueren formulazioa eta dagokion kostua.</li> </ul>
<b>EBALUATZAILEA</b>	Prozesua ebaluatzeko propio esleitutako pertsonal teknikoa, lan hori burutzeko gaitasun bereziak izan behar dituenak. Rol hau UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko pertsonal tekniko batek bete dezake, baina hobe da Udaletik kanpoko eragile batek egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prozesuaren koordinatzaileari metodologi laguntza ematea.</li> <li>• Prozesuaren hasierako aurkezpenari eta eragileei irizpideak emango dizkien prozesu bukaerari laguntza ematea.</li> <li>• Metodologi gidan ezarritako irizpideen arabeko ekintzen exekuzio mailaren ebaluazioa.</li> <li>• Prozesuaren kalitatearen kontrola eta metodologi irizpideen gutxiengoa</li> </ul>

IRUDIA	DEFINIZIOA	ROLA
		betetzearen balidazioa. Beharrezkoa izanez gero, koordinatzaileari laguntza ematea.

## 5. Jarraipenerako Ereduaren proposamena

Jarraian Udaleko nahiz eskualdeko kudeaketa organoen eta partaidetza organoen bitartez prozesuaren jarraipena egin ahal izateko eredu bat aurkezten da.

### **Barne Partaidetza:**

Prozesuaren jarraipena hainbat mailatan burutuko da:

Maila	Organoa	Izaera	Funtzioak	Maiztasuna
Udalekoa	Biztanleriaren parte-hartze batzordea	Politikoa	Informazioa, jarraipena eta parte-hartzea herri mailan	Urtero bi saio gutxienez
Eskualdekoa	UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko Udaltalde Batzordea	Mistoa (UT21 Nerbioi Ibaizaleko kide diren udaletako udal arduradun eta arduradun politiko eta tekniko integratua)	Informazioa, jarraipena eta parte-hartzea eskualde mailan	Urtero bi saio gutxienez

Bi organoak Tokiko Agenda 21 en garapen eta jarraipen prozesuak eskatzen duen maiztasunarekin deituko dira bilerara. Ezarritako helburuak betetzearren, komenigarria litzateke organo bakoitzarekin gutxienez urtean bitan elkartzea.

### **Kanpo Partaidetza:**

Herritarren parte-hartze eta jarraipena hainbat metodoren bitartez burutu daiteke, parte-hartzea bultzatzen duten foro edo tailerrak antolatuz, esaterako. Parte-hartze eta jarraipen hori egin diren Talde eta batzordeen eta urteko programazioaren araberakoa izango da. Gutxienez urtean behin egingo da.

Kanpo partaidetza izan daiteke:

- Tokiko Agenda 21 en prozesuari berari lotua: Tokiko Agenda 21 en jarraipen, ebaluaketa eta programazioa ahalbidetzen duten herritarren parte-hartzeko mekanismoak.
- Sektoriala edo gaikakoa: herritarren parte-hartzeko mekanismoak, adibidez, mugikortasun foroak, airearen kalitatea, biodibertsitatea, Udala-enpresa, parte-hartzeko estrategiak diseinatzeko prozesuetan zentratutako bilerak, etab.